



Kaixo,

Jakingo duzuen bezala, aurtengo azaroaren 18tik abenduaren 2ra bitarteko 15 egunetan Euskaraldiaren 3. edizioa gauzatuko da. Euskaraldia euskara ulertzen duten hiztunen arteko ahozko hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa soziala da. Edizio berri honen leloak dioen bezala **HITZEZ EKITEKO GARAIA** dela zabaldu nahi dugu, hau da, urrats berriak eman ahal ditugula euskararen erabileran.

Edizio berri honek bi helburu nagusi izango ditu. Batetik, Euskaraldian parte hartuko duten norbanako eta entitateek euskarazko praktikak hedatzeko urrats berriak ematea eta, bestetik, parte hartzea hedatzea: ahobizi, belarriprest eta arigune gehiago izatea.

Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiak, Euskaltzaleen Topaguneak, Kuadrillek, Udalek eta herri batzordeek elkarlanean, aurkezpen saio bat antolatu dugu sektore ezberdinetako Aiaraldeko entitate erreferenteei ariketaren berri emateko:

- LAUDIO.- Irailak 21 (asteazkena), 18:00-19:00 (Aiaraldeko Ekintzen Faktoria): Errotari kalea, 4-8, 01400 Laudio

Aurkezpen honetan, Euskaraldiari buruzko oinarrizko azalpenak emango dizkizuegu eta dituzuen zalantzei erantzuna emango diegu. Horrez

gain, entitateetan parte hartzeko prestakuntza eskainiko dizuegu: parte hartzeko prozesua, izen-ematea, entitateek eskura izango dituzten baliabide eta tresnen azalpenak eta beste hainbat.

Beraz, saio honetan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu. Parte hartzea baieztatzeko galdetegi hau bete besterik ez duzue egin behar:

<https://forms.gle/twitwFd1ag7Tw98j8>

Egin dezagun bidea elkarrekin!

Hitzez ekiteko garaia da!